

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: BEASAINGO UDALERRIAN EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA BERDINTASUNA SUSTATZEN DUTEN ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK. 2025. URTEKO DEIALDIA.

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

-Oinarri hauen xedea da Beasaingo Udalak emango dituen laguntzak arautzea, bai emakumeen elkarteak, elkarte feministak eta LGTBI elkarteen ohiko funtzionamendu-gastuetarako, bai emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko programa espezifikoak eta/edo zerbitzuak garatzeko.

-Programa eta jarduera horiek ez dute irabazteko asmorik izango; Beasaingo udalerrian garatuko dira edo, udalerritik kanpo garatzen badira, haien onuradunak Beasainen erroldatutako pertsonak izan behar dute; eta diru- laguntza deialdiari dagokion ekitaldian garatuko dira.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

- a) Legez eratuta egon behar dute eta dagokion Elkartearen Erregistroan izena emanda egotea. Deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko eguna baino, gutxienez, urtebete lehenago egon behar dute inskribatuta dagokion Erregistro Publikoan.
- b) Elkarteek Beasainen izan beharko dute egoitza soziala, ordezkaritza edo administrazio-egitura iraunkorra.

Entitate onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

A)Beasainen jardueraren bat edo programaren bat egitea, deialdiaren urtean.

B)Udalaren aurrean, jarduera egin dela eta kasu bakoitzean ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzea.

C)Beasaingo Udalak egingo dituen ikuskapenen menpe jartzea, eta egin behar dituen ikuskatze jarduerak ez eragozteak.

D)Jarduera bererako lortu den beste edozein dirulaguntzaren berri ematea (iturria publikoa zein pribatua izan).

E)Diruz lagundutako jarduera guztietan egiten den publizitatean, baita ohiko funtzionamendu-gastuei buruzkoetan ere, Udalaren lankidetzari adierazi beharko da, udal-armarria sartuta.

F)Euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko udal Ordenantza betetzen dela zaintzea

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

Jarraian zehaztuko diren jarduera eta programek, berdintasuna sustatzea helburu dutenek, jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak, Beasaingo Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana eta EAEko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana kontuan izanda.

Diru-laguntzen 2 ildo ezarri dira:

- a) 1. Ildoa: Beasaingo emakumeen elkarteak, elkarte feministak eta LGTBI elkarteak

ohiko funtzionamendu- gastuak, hala nola instalazioak eta ekipoak mantentzea, bazkideak prestatzeko eta ahalduentzeko jarduerak. Kontzeptu horretarako 8.000,00 € bideratu dira guztira.

- b) 2. Ildoa: Beasaingo herritarrei zuzendutako proiektuak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko. Kontzeptu horretarako, guztira, 8.000,00 € erabili dira.

Diru-laguntza lerro bakoitzeko eska daitekeen gehieneko zenbatekoa 6.000,00 € da.

Beasaingo Emakumeen elkarteak, elkarte feministak eta LGTBI elkarteek dirulaguntzaren lehen lerroan aurkeztutako proiektuetara bideratutako zenbatekoa agortzen ez bada, eman gabeko zenbatekoa dirulaguntzaren bigarren lerroko proiektuen artean banatu ahal izango da, betiere proiektu bakoitzeko gehienez 6.000 €-ko zenbatekoa gainditzen ez bada.

Deialditik kanpo daude:

- a.- Aisialdiko jarduerak baino ez diren proiektuak.
- c.- Genero-ikuspegirik gabeko proiektuak.

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Epea:

Udalbatzak onetsitakoan, DNBr bidaliko dira, eta GAOn argitaratu ondoren, eskaerak aurkezteko epea hasiko da. Epea hilabetekoa izango da, oinarriak GAOn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Modua:

Eskabidea oinarri hauetako 1. eranskinean jasotako ereduaren arabera aurkeztu beharko da, eta hurrengo puntuan adierazten diren agiriekin batera aurkeztuko da. Eskabideak honela aurkeztuko dira:

- Nagusiki, Beasaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez:
<http://www.beasain.eus/es/bulego-birtuala>
- Aurrez aurre, Igunean.